


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**OKENDO 24**

Egileak eta data: Manuel Urcola eta Domingo Eceiza; 1870

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina eta hiru goi oin dituena. Goi oinetako fatxada mosaikoz estalia eta baoen azpadurak nabarmenduta. Begiratoki zutabe bat du goi oinetako eskuinaldeko baoaren aurrean eta begiratoki bakartu bat bigarren oinean. Behe oineko fatxada harlanduzkoa, zati batez xaflatua (ataria).

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
2. Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutako gainerakoak, behe oinaren konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.